

DISEÑOS DE INVESTIGACION EXPERIMENTAL EN PSICOLOGIA

Balluerka, N. eta Vergara, A. I.
Madril, Prentice-Hall, 2002

Diseinu esperimentalaren arloko argitalpenen artean, garrantzizko ekarpen bat dakar, gure aburuan, aipatuko dugun liburu honek.

Diseinuaren kontzeptua jorratuz, hots, ikuspegi formal batetik ikerketa-planifikazioaren parte diren elementu garrantzizkoenak deskribatuz (1. atala), hasten den liburu zabala dugu esku artean. Diseinuaren hurbilketa orokorra aipatu ondotik, portaera-jakintzetan ohi denez, ikerketako-metodo orokorra hiru alternatiba metodologiko nagusitan bereiztuz, horien ezaugarri esentzialak erakusten dira: metodologia esperimentalarenak, hautazko metodologiarenak eta behaketazko metodologiarenak, alegia. Halaber, modu laburrean bada ere, portaera-fenomenoen ikerketan erabiltzen diren diseinu mota nagusienak deskribatzen dira: diseinu esperimentalak, ia-esperimentalak eta ez-esperimentalak, alegia (2. atala). 3. eta 4. ataletan, berriz, giza eta gizarte-jakintzetan existitzen diren diseinu esperimental mota anizkunak sailkatzeko, gaur egun erabiltzen diren irizpide nagusiak eta horiek guztiak izaeratzten dituen metodologiaren ezaugarri nagusiak, hots, metodologia esperimentalaren ezaugarriak azaltzen zaizkio irakurleari. Diseinu esperimental klasikoaren barrutian maizenik erabiltzen den datuen analisirako teknika den bariantza-analisia, nola ikuspuntu unibariatuan hala multibariatuan, agertzera eskainita dago 5. atala osorik. Eta seigarren ataletik obraren amaierara arte (10.

atala), portaera-jakintzen barrutian maiztasun handienarekin erabilitako diseinu esperimentalak eta diseinu horiei lotutako analisi esta-tistikorako teknikak aztertzen dira. Atal hauei dago kienez, obraren parterik luzeena eta garrantzizkoena egiten dutenetan, alegia, esan beharrekoa da zorizko faktore bakarreko eta faktore anitzeko diseinu eredu desberdinak, errore bariantza murrizten duten diseinu esperimentalak, zati batean edo osotasunean errepikatutako neurrien diseinu esperimentalak eta oinarritzko egituran elementu batzuk sartzeagatik edo kentzeagatik ezagutzen diren diseinuak agortu arte aztertzen direla. Diseinu bakoitzari dagokion datu-analisiaren ezaugarri nagusienak modu oso didaktikoan eta psikologiako hainbat adibiderekirkin azaltzen dira.

Jaume Arnau irakasleak, obraren sarreran, ikerketa esperimental eta ia-esperimentalaren metodologiako alderik garrantzizkoenak deskribatzen ditu, bi tradizio metodologikoetan erabiltzen diren diseinuen ezaugarri orokorretan bereziki eraginez. Molde horretan, ikerketa esperimentalaren paradigmen barnean, liburuan ikertzen diren diseinuak testuinguratzen ditu.

Nahiz eta diseinu esperimentalaren gaia molde bikainean jorratzen duen hainbat obra baden, horietariko gehienetan diseinuaren eredu bakoitzari loturiko garapen analitikoaren prozedura bakar baten bidez lantzen da. Aitzitik, testu honetan, formula tradizioaletan

oinarritutako garapen matematikoa, analisi horiek metodo matrerialaren bidez edo SPSS (Windowsarentzat 10.0 bertsioa) programa estatistikoa- ren bidez egiteko jarraitu behar den prozeduraren aurkezpenarekin eta lorturiko emaitzen interpretazioarekin osatzen da. Gisa horretan, irakurlea testuan bertan dagoen diseinuaren deskribapenera, eta datuen analisisira- ko ikertzaileak taxututako estrategia desberdinetara ailega daiteke, proble- maren planteamendutik emaitzen lor- penera arteko prozesua ulertzea erraz- ten duten adibideak jarraituz, horreta- rako material edo liburu loturagabeak erabili beharrik gabe, alegia. Hau da, nire aburuan, aipatzen dugun obrak, gai berean saiaturako beste batzuekin alderatuta, dakarren berritze garrantzi- tsuena.

Aipaturiko izaera bereizgarriaz gain, beste hau ere seinatu nahi dut: di- seinu esperimental lantzen duten testu gehienek ez bezala, obra honek ikerketa alorrean erabil daitezkeen ba- tezbesteko bikoteen arteko konpa- raketa anitzerako froga garrantziz- koenei buruzko ikuspegi zabala es- kaintzen duela, horietariko bakoitzaren

abantailak eta desegokierak azpima- rratuz. Obraren alde zehatzekin jarrai- tuz, aipagarria iruditzen zait erregre- sio-eredutik abiatuz, zeinak analisi- -mota horren euskarriak molde ego- kian konpreniarazten baititu, kobarian- tza-analisia zer modu berezian ager- tzen duen.

Azkenik, adierazi nahi nuke liburuak web-orrialde gehitu bat daramala, zeinean autoebaluaketako ariketak, SPSS fitxategiak, diseinu-barrutian interes handieneko diren loturak... eta liburuaren baliagarritasun aplikatua areagotzen duen elementu gehiga- rrien zerrenda baitoaz.

Behin betiko, autoreek irakurleari erreferente teorikoa den eskuliburua eskaintzeaz gain, batez ere, bere iker- keten kalitatea hobetzen lagunduko dion erreferente praktiko bat eskain- tzen diote. Arrazoi horrengatik, aipa- tzen ari garen obraren irakurketa go- mendatu nahi diegu zorroztasunez eta seriotasunez betetako ikerketak egin nahi dituzten psikologiako jakintsu eta profesionali.

Jokin Apalategi